

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen erroldak jendaurrean jartzea —2020ko lehen hiruhilekoa—

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen errolda fiskalak (2020. urteko lehen hiruhilekoari dagozkionak) hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita, Uren Udal Zerbitzuan —Antilletako pasabidea, 3A— eta San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Du-
blang Margolariaren kalea 25, behea—, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiterik izan dezaten.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo diren erroldetan ageri diren likidazioen kontra berraztertze-
errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa horiek ordaintzeko epea 2020ko maiatzaren 4tik ekainaren 15era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 6an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE